

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

167. zenbakia

Data 2012-08-31

18 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA

36/2012 FORU DEKRETUA, abuztuaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren

Erregelamendua aldatzen duena jarduera profesionalen etekinen gaineko atxikipenen arloan.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

36/2012 FORU DEKRETUA, abuztuaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duena jarduera profesionalen etekinen gaineko atxikipenen arloan.

Orain gutxi, aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legearen bidez, behin betiko izaeraz nahiz aldi baterako izaeraz (2012ko irailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean) hainbat neurri sartu dira lurralde erkideko zerga ordenamenduan, haien artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipen tasei eragiten dietenak.

Hori horrela, 2012ko irailaren 1eko ondorioekin eta behin betiko izaeraz, jarduera profesionalen etekinei aplikagarriak zaizkien atxikipen tasak igotzen dira, eta hurrenez hurren 100eko 15 eta 7tik 100eko 19 eta 9ra aldatzen dira.

Dena den, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko presazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Dekretu Legearen bidez egin zen bezala, atxikipen tasen beste igoera bat sartzen da behin-behinean. Igoera hori 2012ko irailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean aplikagarria izango da, eta hasiera batean 100eko 19ko atxikipen tasan zergapetuta dauden jarduera profesionalen etekinak 100eko 21eko atxikipen tasan zergapetuta geratuko dira behin-behinean.

Jarduera ekonomikoen etekinen atxikipenak ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatutako tasa berdinak aplikatu behar dituzte foru aldundiek, hala xedatzen baitu 8. artikulua lehen apartatuko bigarren paragrafoan Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak.

Hortaz, esandako aldaketa hori Gipuzkoako zerga ordenamenduan jasotzen da, Ekonomia Itunak xedatutakoa betetzeko.

Abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 109. artikulua 1. apartatua jasotzen duenez, atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, erregelamenduz finkatzen den portzentajea aplikatu behar zaio ordaintzen den kopuru osoari.

Bestetik, abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak amaierako bigarren xedapenean dio ezen Gipuzkoako Foru Aldundiak behar diren xedapen guztiak eman ditzakeela aipatutako foru araua garatzeko.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Jarduera profesionalen etekinen atxikipen tasak igotzea.

2012ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin, xedapen hauek aldatzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretu bidez onartutakoan:

Bat. Honela aldatzen da 114. artikulua 1. apartatua:

«1. Etekinak jarduera profesional baten kontraprestazio direnean, ordaindutako sarrera osoen gainean 100eko 19ko atxikipena aplikatuko da.

Alabaina, zergadunek jarduera profesionala hasi badute, atxikipen tasa 100eko 9koa izango da jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan, baina beti ere jarduera hasi aurreko urtean inolako jarduera profesionalik egin ez badute.

Aurreko paragrafoan aipatu den atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek zirkunstantzia hori betetzen dela jakinarazi beharko diote etekinen ordaintzaileari, eta honek komunikazioa gorde beharko du behar bezala sinatuta.

Atxikipena 100eko 9koa izango da etekinak jasotzen dituztenak honako hauek direnean:

— Udal zerga-biltzaileak.

— Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten bitartekariak.

— «Loterías y Apuestas del Estado» sozietate estataleko ordezkari komertzialak.»

Bi. Zortzigarren xedapen gehigarri bat eranstean da, eduki hau duena:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. Jarduera profesionalen etekinei 2012 eta 2013an aplikagarria zaien atxikipen tasa.

2012ko abuztuaren 31ra arte ordaindutako jarduera ekonomikoen etekinetarako, erregelamendu honek 114. artikulua 1. apartatua aurreikusitako atxikipen portzentajeak izango dira apartatu horrentzat 2012ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen idazkeran jasotakoak.

2012ko irailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean ordaintzen diren jarduera ekonomikoen etekinetarako, erregelamendu honek 114. artikulua 1. apartatua aurreikusitako atxikipen portzentajea 100eko 21 izango da, salbu eta apartatu horretan jasotako 100eko 9ko portzentajea aplikagarria bada».

Amaierako xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, bere xedapenetan espresuki jasotako ondorioak eragotzi gabe.

Donostia, 2012ko abuztuaren 28a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(1786) (8261)